

IGEentzako diru-laguntzak


Gogorazi nahi dizuegu zuen **Guraso Elkarteak 2010eko uztailaren 1etik abenduaren 31ra bitartean burututako jardueraren zurieta ekonomikoa** egiteko epea hurrengo 2011ko otsailaren 2an bukatzen dela.

Zurieta hori Eusko Jaurlaritzaren Arabako Lurralde Ordezkaritzan aurkeztu behar da. Gure www.denoneskola.org webgunean ikus dezakezue egokitu zaizuen kopurua, beraz ziritu behar duzue.

Aldi berean jakin ezazue hurrengo 2011 urtean burutuko dituzuen jardueratarako diru-laguntza deialdia hemendik gutxira argitaratuko dela. Ateratzen den unean informazio guztia helaraziko zaizue Denon Eskolatik.

Guraso Elkartearen praktika onak

Guraso Elkartearen hezkuntza-jarduera onen lehiaketa antolatu du EHIGEk. **EHIGEn konfederatuta dauden federazioetan elkartutako IGE guztiak parte har dezakete** bertan. Mota guztietako hezkuntza-jarduerak aurkez daitezke, sinpleenetik hasita konplexuenetaraino. Beste IGE batzuentzat eredu garri izan daitezkeen esperientziak baloratuko dira, eta bai Guraso Elkartearen lan eta borondate ona erakusten dutenak ere. Sariaketa honen inguruko informazio guztia bere oinarriekin batera bai gure webgunean zein EHIGE konfederazioarenean- www.ehige.org — aurki dezakezue.



Bestelakoak

Erlijioa

EHIGE Konfederaziotik "ESKOLA PUBLIKO LAIKOA"-ren aldeko kanpaina abiatuko dugu. Hori dela eta administrazioari egiten dizkiogun eskaerak azalduko dituen gutuna jasoko duzue hemendik gutxira. Erljioa derrigorrezko eskola ordutegi orokorretik atera dadila nahi dugu denbora hori oinarriko curriculumeko bestelako ikasgaiak emateko erabiliz.

Ordezkapenak

Batzar Orokorrean ordezkapenen inguruko arau berrien aurrean Hezkuntza Sailari OOG-etatik kezka adierazteko testua prestatzea adostu zen. Horrela egin da eta ikastetxeetatik bidalketa orokor hori burutzen ari da.

Eskola Mapa

Eskola Mapa egokitzeko emango diren urratsen berri eman zaigu. Sortu dira ikerketa eta lanerako taldeak eta bertan eskola-elkarte osoko ordezkarriak egon behar dutela uste dugu.

Denon Eskolatik gaiaren gainean izango gara egoki ikusten dituzuen proposamenak bultzatu eta bideratuz.

Jantokiak

Jantokiko begiraleen lan ordutegiari gehitu zaizkion 18 orduen aplikazioaren inguruan ikastetxeetan ematen ari den ez jakite orokorraren aurrean hezkuntza administrazioari aipatutako gaia ikastetxeetan nola betetzen ari den azaltzea eskatu diogu eta erantzunik izan bezain pronto jakinaraziko dizuegu.

Aurre-matrikula Kanpaina 2011

Hurrengo 2011ko urtarrilaren 31an 2011-2012 ikasturterako aurre-matrikula egiteko epea irekiko da. Aurretik berriena **on-line** eran egiteko aukera izango da, horretarako espresuki Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailaren webgunean irekiko den atalean. Horrela eginez gero azken eguna **otsailaren 10a** izango da. Ohiko eran aukeratutako ikastetxean egin nahi bada eskaria egiteko azken eguna **otsailaren 11** izango da. Gure webgunean aurre-matrikularen hainbat azalpen eta argipen adierazten duen dokumentua aurki dezakezue. Bertan besteren artean ikastetxeren batean eskainitakoak baino leku gehiago eskatzen badira erabiltzen den baremazio sistema eta irizpideak ere azaltzen dira.

Herrietako Eskolak

Batzar Orokorrean adostu zen bezala aurten Denon Eskolaren lehentasunen artean dago herrietako eskolara hurbilpen bat egitea. Argi daukagu herrietako eskola horiek hirietako eskolek dauzkaten kalitate helburu berberak betetzeko trataera berezia eskatzen dutela.

Herrialdeko Guraso Elkarte guztiengana hurbildu nahi dugu lan talde bat osatzeko asmoz, eta bertatik daukagun behar espezifikoak adostu eta finkatu eta ondoren gaien ardurak dauzkaten administrazio ezberdinetara eramateko.

Agenda

Urtarrilak 28, ostirala

Virgen del Campo
Guraso Elkartearekin bilera
Lekua: Maeztu
Arratsaldeko 18:00etan

Otsailak 16, asteazkena

Denon Eskolaren Zuzendaritza Batzardea
Lekua: Federazioaren aldi baterako egoitza
Habana kalea z/g (antzinako Pio Baroja ikastetxea)
Arratsaldeko 17:30etan



Eta zergaitik gauza biak ez?

Lana eta familia bateragarri egiteko
LAGUNTZA BERRIAK ETA HOBEAK.

Orain informatu eta izapidetu on line
www.euskadi.net/familia webgunean edo 012 telefonon

